

Astekaria

BARRREN

elgoi



Errege gava,
ilusioa
ametsekin nahastua



BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

Banatzailea: Julio Bueno

- "Solar Gailur" ardoak
- "Ardandegi" Ardoak
- "ZUDUGARAI" Getariako txakolina
- "Cavas HILL" en ordezkaritza
- "ILAGARES" ardo nafarraren ordezkaritza

AITZ BIZKAR

ARDOAK

Etxerainoko lanaketa

Ura • Patata • Makailoa • Likoreak

Errosario, 20 • ☎ 74 02 37 • ELGOIBAR

IBAR-TXIKI

EDARI BANATZAILEA

☎ 74 05 03



ARACO ardoen kalitateak errekonozimendu berri bat jaso du.

"Guia Peñin de los Vinos de España" argitalpen entzutetsuak 80 puntu eman dizkio

ARACO beltzari 100 punturen gainean.

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Jon Barandiaran, Asier Etxaniz, Felix Etxeberria, Itziar Fernandez, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Joseba Gorosabel, Xabier Gorriti, Alfonso Guilló, Maite Iriondo, KOKOE, Eduarne Korta, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Nerea Lodoso, Jesus Mari Makazaga, Iñaki Odriozola, Jose Inazio Sarasua, Olga Unzilla, Miryam Villasante, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



leku bakoitzeko
fundazioan leku bakoitzeko



Estreinatu gabeko egunak

Ilusioa egiten du urtez aldatzeak; neri bai behintzat. Badirudi iazkoan gertatutako gauza txarrak atzean gelditzen direla eta aurretik estreinatu gabe ditugun 365 egunetan edozer izango dela posible.

Urte berriarekin batera asko dira beraien bizitza aldatzeko asmo "sendoa" erakusten dutenak. Nere aldetik aurten ere ez diot erretzeari utziko. Hala erabaki dut. Urte berrirako asmoak horretan gelditzen dira beti, asmoetan, eta aurten ez dut urteroko egitasmo onen zerrendarik egin. Total, azkenean denak berdin jarraituko du. Urrutiko eta gertuagoko gerra hotsak ez dira isilduko eta abenduan geneuzkan arazoak hor dira oraindik. Urtez aldatu ez bagenu bezala.

Baina ez da komenigarria urtea halako pentsamenduekin hastea. Izango dugu goibeltzeko aukera hamabi hilabete luzeetan zehar. Iazkoa Familiaren Nazioarteko urtea izan omen zen eta, nabaritu dut inguruan, lagunak ere umeak munduratsen hasi baitira. Aurtengoa, berriz, Tolerantziaren urtea dela irakurri dut nonbaiten. Ez da titulu makala! Badakigu



emakumeak ez duela berdintasun gehiago lortzen Martxoaren 8an, eta langileak ez dituela bere arazoak Maiatzaren Lehenean konpontzen, baina egun horietan behintzat, burua zertxobait gehiago nekatzen dugu horietaz pentsatzen.

Tolerantziaren aldeko 365 egun ditugu aurretik, beno, dagoeneko 360 dira. Horietan ez dute ezertarako balioko argazkietan ateratzeko egingo diren ekimen ofizialek. Ez du ezertarako balioko hamaika politikarik haur gaixo gizajoak bisitatzeak. Ez du ezertarako balioko hanka puntetatik bururaino lazo gorritz jazteak, SOS Arrazakeriaren manifa handietara joateak edo %0,7a eskatzeak.

Urtea amaitzean benetan tolerantziaren bidean aurrerapausu handia eman dugula esateko bakoitzaren esku dago egin beharrekoa. Barrutik atera behar da, bihotzetik. Arraza, sexu, ideologia edo gaixotasunen bat izateagatik baztertuak daudenak asko dira munduan. Euskal Herrian ere bai. Baita Elgoibarren ere.

Montse Arregi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udala
diruz lagundutako
aldizkaria*



Honako hiru kexa hauek heldu dira aste honetan gure erredakziora:

- “Pasa den abenduaren 29an Mugen Gaietik taldeak “Hirugarren mundua eta gosea” deitutako hitzaldia antolatu zuen Kultur Etxean. Bertara lau pertsona bakarrik azaldu ginen. Gaia interesgarria zen eta jende asko oporretan zegoen. Hala ere, herritarren erantzuna ezin eskasagoa izan zen. Badago kexatzeko arrazoirik”.
- Errosario kaleko emakume batek deitu digu haurren Olentzeroa euren kaletik zergatik ez zen pasatu galdetu eta kexatzeko. Eurek ere zergak ordaintzen omen dituzte eta horrelako ikuskizunak ikusteko aukera izan nahi dute.
- Bederatzi urteko mutiko batzuek kexa bat luzatu nahi diote Kiroldegiari. Frontoian jolasteko 100 pta ordaindu behar omen dira baina beraiek ezin dute diru hori ordaindu. Beraz, doan izatea eskatzen dute.


TXALOAK

Zeleta baserrikoek Gabon Zahar azokara azaldutako jendeak bertako produktuengatik erakutsitako interesa eskertu nahi dute.

ESKUTITZAK

Juan Martin Etxeberria jaunari erantzunez

Euskal Herriak gaur eta beti, osasuna, lana eta pakea nahi ditu”. Esaldi horrekin guztiz ados nago, baina hori lortzeko ASKATASUNA behar beharrezkoa da.

“Eusko Jauriaritza eta burujabetza daukagu”. Noski, Ipar eta Hego Euskal Herria bitan zatituta mantentzeko eraikitakoa, Jainkoa eta Lege Zarrak bai, eta ZAZPIAK BAT? Ala kontatzen ahaztu zaizu? Zer da zuretzat burujabetza? Espainiako Konstituzioaren menpe egotea, noizbait eta korrupzioa ixilean edukitzearen truke bizpahiru transferentzia ematea, euskara bigarren hizkuntz bezala erabiltzeko eskubidea izatea? Noren eskutan daude Herri bat eraikitzeko behar diren tresnak, dirua, ura, enpresa estratejikoak, argia, errekinak, txanpona egiteko gure Banku Nazionala? Zergatik ordaindu behar diogu kupo bat Espainiako Erresumari? Ez edukitzearen ez daukagu gure selekzio nazionala ere, lotsagarria da Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan euskaldun pilotariak herri estranjero baten, piper potoaren atzean ikustea. Ah! Eta zure karneteen zer jartzen du, EUSKALDUNA agian?

“Gure ohitura zaharrak

maitatzen bizitzeko aukera”. AEKri urteetan subentzio hutsala. Egunkariari berdin, euskara eta kultura Buesa espainiolaren eskuetan, Donostian Sevillako eguna, laster Lehendakariari aureskua dantzatu orde, sevilla bat dantzatuko diote.

“Ez dira arrazoizkoak HBren eskakizunak. Borrokaren bitartez Independentzia lortzea ameskeria da”. Herriaren eraikuntzaren, askatasunaren, hizkuntzaren alde egindakoak arrazoizkoak dira eta ez dago herririk munduan borroka egin gabe askatasuna lortu duenik. Beste alderdiek Herri Batasunaren amore eta kemena eduki izan balute aspaldian zegoen lortuta SUBIRANOTASUNA eta gatazkaren alderdi odoltsuena aspaldian zegoen desagertuta.

“Euskal Herri aberatsa erresumarik behartsuena bihurtu da”. Jakin ezazu Jauna, hori Independentzia politikoa eta ekonomikoa gure eskuetan ez edukitzeagatik dela eta zure Eusko Jauriaritzari Euskal Herriko biztanleen egoera bost axola zaiolako, nahikoa baitute bere poltrona eta soldata milionarioekin poltsikoa betetzea. Elkarki laguntzeko, pakea lortzeko, presoak etxeratzeko beti egongo gara prest baina Espainian eroso sentitzeko eta herri hau saltzeko neri behintzat ez deitu.

Kurutz Castrillejo

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Modesto Mujikak** lagatakoa da. Gehienok konturatuko zineten bezala, Morkaiko gurutzearen parean aterata dago **1958. urtean**.

Erretratua urte berri egunean aterata dago, garai haietan Morkaiko M.E.k antolatuta jende asko animatzen baitzen urteko lehenengo egunean Morkaikora igotzera. Goizeko 9etan Plazatik irteten ziren txapligua bota ondoren. Goizean berriketan eta elkarri adarra jotzen jarduten omen zuten (Jaiotza jartzeko ohitura gerokoa omen da). Jeisterakoan, berriz, San Migelera joan eta bertan egiten zuten hamarretakoa.

Modestok esan digunez, gaur egun dozenaren bat lagun animatzen omen dira urtarrilaren 1ean Morkaikora igotzera. Ohiturak aldatu egin dira! Zeintzuk diren argazkikoak?

Atzeko ilaran ezkerretik hasita: **Modesto Mujika**, **Pedro Arriola** (†), **Jose Mari Etxeberria**, **Pedro Mari Esnaola**, (...), **Pako Mugerza**, **Gerardo Garate** (†), **Asensio Otegi** eta **Isidro Goikolea**.

Erdian: **Angel Iriondo**, **Nicomedes Larrañaga** (†), **J.M. Etxeberria**, **Jose Azkoitia**, **Jose Oria** (†), **Jose Oñederra**, **Primitivo Iriarte** (†), **Modesta Iriondo**, **Ramon San Martin**, **Luis Artetxe**, **Felix Irureta** (†), **Iñaki Larrañaga**, **Pako Iriondo**, **Roberto Zubiaurre** (?), **Xabier Argarate**, **Martin Elustondo** (†), **Jabier Zengotita**, **Manolo Aizpiri**, **Sabino Astiazaran** (†) eta **Gillermo Garmendia** (†).

Makurtuta: **Primitivo Martinez** (†), **Ramon Maiztegi**, **Mari Karmen Txurruka**, **J. Jose Astigarraga** (†) eta **Iriondo**.

Gaztetxoak: **Mari Jesus Leiariti** eta **Juan Mari Eguren**.

HISPANIA  **ZURICH**

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Pinturas

 **Fermi**

- Pinturak
- Enpapelatuak
- Gotelé
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g (Anayak etxea)
Tel: 74 39 91

Gaurik majikoena

Urtarrilak 5. Errege gaua. Gaurko gaua berezia izan ohi da, oso berezia etxeko txikienentzat batez ere. Urtean zehar zintzoak eta onak izan diren neska-mutilentzat, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek opariak uzten dituzte arbola ondoan bereziki horretarako jarritako oinetakoan. Opariak banatu aurretik, ordea, Erregeek "kabagalta" edo kalejira egiten dute herrian zehar. Ilusioz beteriko gau honetan, haurrek Erregeek emandako goxokiak hartzen dituzte urrea eta mirra izango baliran. Gero, Erregeek, opariak eskatuz eta zein onak izan diren kontatuz, haurrek idatzitako gutunak jasotzen dituzte.

Parrokiko katekista taldea da urtarrilaren 5eko Errege kabalgataren antolatzailea. 40 bat emakume dira; jantziak prestatu, haurrak antolatu, Udalarai baimenak eskatu, aurrezki kutxetan goxokiak eta herriko dendetan txorizoa eta ogia eskatu, erretako jantziak ordezkatu, jantziak garbitu, plantxatu eta berriro gorde... eginkizun mordoa egoten da egiteko. Azaroan hasten dira lanean. Katekistak ezezik, herritar askok laguntzen dute kabalgata antolatzen. Jaiotza gizon talde batek ipintzen du urtero, Udal bri-



→ Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Ilusioaren erregeak.

gadakoan, elektrizisten eta Udaltzainen laguntza ere behar beharrezkoa izaten da; arratsalde partera, urtero urtero huts egin gabe, lanean diharduten katekistei kafesnea eramaten dienik ere bada, jostun batek arropak josten lagun-tzen die, Ego-Tokiko hiru kidek Olentzerok banatzen duen txorizoa egosten dute eta kabalgatan parte hartzen dutenei banatzen zaïen otartekoa ere prestatzen dute. Izen anonimoen zerranda amaitezin batek osatzen du laguntzaileen taldea. Dena den, Katekistak jende gaztearen beharra somatzen hasi dira datozen Kabalgata antolatze-ko.

Muntaia izugarria

Katekistek Bibliak dioena eredu hartuta muntatzen dute urtero



Kabalgata. Kabalgata ez da Erregeen kalejira soilik, Jesus haurtxoaren jaiotzean oinarritzen den mezua jende guztiarengana heltzea nahi dute. Urtez urte, Kabalgata handitzen eta geroz eta konpletuagoa bihurtzen joan da. Hiru erregeak ezezik, Olentzero ere agertzen da, eta Jaiotzaraino hurbiltzen dira Jesus haurtxoa gurtzera. Kabalgata osatzen dute: hiru Erregeak eta pajeak, lehen erregarekin doazen 12 afrikarrak, bigarren erregearekin dozen beste 12ak, hirugarren erregearen 12 egipziarrak, 75 neska-mutil suziarekin, pakearen karrozan doazen 6 neska-mutilak, trikitalari eskolakoak eta musikeskolako soinu-jotzaileak, baseritarrez jantzitako herriko haurrak (talde honetan herriko haur guztiei partehartzera



➔ Ezkerrean eta goian: bisita berezi-berezia egiten dute Erregeek Udaletxeko pleno aretoan.

➔ Ezkerrean eta behean: Jesus haurtxoa gurtzera datoz Erregeak Ekialde Urrunetik.

➔ Lerro hauen gainean: 1977. urtea. Katekistek antolatutako lehen Erregeen etorrera. Urte horretan ez zen Kabalgatarik izan, Erregeak Haurren mezan agertu ziren.

➔ Behean: Olentzerok ere haur jaiotze berria bisitatu nahi izaten du. Artzaiekin eta aingeruekin batera Plazan egoten da txorizo otartekoak banatzen.



gonbidatzen zaie), Jaiotzako aingeruak, Jesus haurtxoa, Amabirjiña, San Jose, artzaiak eta Olentzero, dantzariak eta txistulariak... Aurten gainera, 15 txilaba eta txapela berri josi dituzte katekistek beraiek. Zaldiak Zelandi, Iriarte eta Etxeberrizabal baserrietatik ekarritakoak dira. Elizako obrak direla eta, Plazako iturriaren aurrean jarri da aurten Jaiotza.

Santa Klarako eskolaurretik irteten da Erregeen komitiba arratsaldeko 6etan. Haritz Dantzari Taldekoek aureskua dantzatu eta gero, eta soinu-jotzaileek jo eta gero, Olentzerok eta Erregeak opariak eramaten dizkiote Jesus haurrari. Segidan kalejira hasten da. Ohitura bihurtu da Maalara heltzean, San Lazaro egoitzakoei bisita egitea eta opariak

banatzea. Plazara bueltatzean, haurren gutunak jasotzen dituzte Udaltxeko arkupeetan eta segidan, akats psikikoak dituzten herriko 15 bat neska-mutil opariak banatzen zaizkie. Bukaeran parte hartu duten guztiei txorizo otartekoa eta Coca-cola ematen zaie.

Hurrengo urtera arte

Erregeen lehen agerpena

Katekistak baino lehen, "Frente de Juventudes" zeritzan taldeak antolatzen zuen kabalgata. Urte batzuetan egiteari utzi zitzaion eta 1977. urtean, katekistek haurrekin etengabeko harremana zuten, Errege gauerako zerbait antolatzera animatu ziren. Haurrei ilusioa emango zien zerbait egitea nahi zuten. 1977. urtekoa ez zen kabalgata izan. Errege egunean, 11,30etako haurren mezan, lehendabiziko aldiz agerpena egin zuten hiru Erregeek. Inprobisatutako gauzek duten enkantuarekin, apaizen kapekin jantzita, eskuz egindako koroekin eta zenbait ehiztarik ekarritako faisaien lumekin apainduta, agertu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Urte hartan, benetako beltz batek egin zuen Baltasar erregearen papera. Itxura denez, Urasandiko etxeen eraikuntza lanetan zebilen afrikar bat omen zen.



Abenduaren 23ko arratsaldean izan zen bigarren BARREN sariaren ekitaldia. Izaskun Elizburuk aurkeztutako saioari hasera eman zioten Alberto Agirreazaldegi BARREneko zuzendariak esandako hitzek. Gonbidatu modura mahaian izan ziren Juan Mari Eguren Udaleko alkate ordea, Roman Berriozabal Eusko Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako zuzendaria eta Garbiñe Egibar Aldundiko Kultura zuzendaria. Amaieran, Amaia Zubiria kantariak Gabon kantak eta bestelako kantak ere abestu zituen.



■ PUBLIZITATEAREN ATALEAN, Jon Sanz publizistaren iritziz, *Osoro* zapata dendak, *Garate* jantzidendak eta *Pitxintxu* dendak, publizitatea egiteko modurik orijinalenagatik, hiruek batera egiteagatik, merezi izan zuten Mertxe Sueskun eskultoreak egindako saria. Saria ematen, BARREneko publizista, Nekane Etxaniz. ■

■ Pello Arrietak *Txokorik Txoko* atalean egindako lanagatik jaso zuen **KOLABORATZAILE FINENARI** egokitutako saria. Saria ematen, BARREneko erredakzio kontseiluko kide den Edurne Bilbao. ■



Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66

Ondo pasa Gabon jaiak!

50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

**ALDAPA
TABERNA**


Santa Klara -22
☎ 74 26 32

■ Jose Alberto Ansolak, Mauxitxa txarangako zuzendariak, 25. urteurrena ospatu dutelako jaso zuen Mauxitxa osatzen duten guztien izenean, **HERRIKO ELKARTEARI** emandako saria. Saria ematen, erredakzio kontseiluko Rosa Iriondo. ■



■ **HERRI KOMUNIKABIDEEN ATALEAN**, iparraldean astero argitaratzen den Herria aldizkariak egindako lanaren errekonozimendu modura, eta aurten 50 urte bete dituztelako eman zion **BARREN**ek saria. Berau jasotzera iparraldetik etorritako Pello Jora Juria izan zen eta saria ematen, Juan Mari Eguren alkate ordea. ■

■ Elkarte edo **ERAKUNDE LAGUNTZAILEARI** emandako saria Aldundiari egokitu zaio aurten. Garbiñe Egibari Kultur Saileko zuzendaria izan zen ekitaldian. Berak hartu zuen Elgoibarko Izarrako presidentea den Ales Arrietaren eskutik **BARREN** saria. ■




■ Aurten 75 urte bete dituen Argia astekariak ere, **KOMUNIKABIDEEN SAILEAN SARIA** merezi izan zuen. Astekariaren ordezkari modura Xabier Letona kazetariak Alberto Agirreazaldegi, **BARREN**eko zuzendariaren eskutik, jaso zuen saria. ■



■ Saritutako herriko beste elkarte bat, Karidadeko monjen lagundia izan zen, aurten Elgoibarrera etorri zirenetik **125 URTE BETE DITUZTELAKO**. Karidadeko monjek Jose Inazio Sarasua, erredakzio kontseilukidearen eskutik jaso zuten saria. ■



■ **AMAIA ZUBIRIAK**, amaiera ezin goxoagoa eman zion **BARREN** sarien ekitaldiari. Bere ahotsez, inolako instrumenturen laguntzarik gabe betiko abestiak, tartean euskaraz kantaturiko jotarik ere, eta Gabon kantak eskaini zituen. ■



Zorionak eta Urte Berri On! **ÜLATZ, S.I.**

Ofizinak eta erakusketa: Pedro M. Urruzuno, 8, Tel-Fax 74 38 44

■ Indarrean sartu da farmazien komarkalizazioa

Aste honetan indarrean sartu da Elgoibar, Mendaro eta Plaentxiko farmaziek iaz hartutako komarkalizatzeko erabakia. Komarkalizazioa igande arratsalde eta jaiegunetan eta gaueko txandetan bakarrik izango da, hau da, egunez orain arte bezala irekiko dute farmaziek, goizeko 9etatik gaueko 9ak arte. Beraz, igande arratsaldetan eta gaueko larrialdietan bakarrik izango du neurri honek eragina. Goardiak hiru herrietako zazpi farmazien artean egingo dira. Farmazia bakoitzak astebeteko txanda egingo du; hortaz, lau astetan zehar Elgoibarkoek egingo dute goardia, hurrengo bi asteetan, Plaentxikoek, hurrengo astean Mendarokoak eta azken astean Plaentxikoek berriro. Txanda sistema honen arabera, Plaentxiko eta Mendaroko farmaziak ez dira otsailera arte goardiak egiten hasiko. Plaentxiko eta Mendaroko farmazien helbideak eta telefono zenbakiak: Plaentxin Maria Jesus Zabaleta, Kale Barren 9, (75 13 84), Maria Teresa Escala, Rekalde 1, (75 16 38) eta Mendaron Maria Rosario Anduaga, Mendarozabal-San Jose, (75 61 42).

■ Altolako Parrokiako Gabonetako zozketa

Altolako parrokiak abenduaren 24ean zozketatutako Gabonetako otarraren zenbaki saritua 593 izan da. Beronen jabea Angeli Zabala elgoibartarra da eta berari egokitu zaio Gabonetako otarra.

■ Parrokiako loteria

Parrokiatik deitu digute jendeari jakin arazteko, abenduaren 22an zozketatu zen Gabonetako loterian parrokiako zenbakia, 60.561, saritua izan zela. Aipatu zenbakia duenak, Caja Laboral-Euskadiko Kutxan jaso dezake tokatu zaion dirua.

Antzerkia eta dantza bultzatu nahi ditu Euskadiko Antzoki Sareak



Euskadiko Antzoki Sareari buruzko bilera burutu zen joan den hilaren 22an bukaeran Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordea izan den Mikel Etxeberria izan zen. Salburuordeak azaldu zuen bezala, Antzerki Sarearen helburu nagusia, herrietan erreprezentazio gehiago eta kalitatezkoak edukitzea da. Aurkezpena egin eta gero, bileran izan ziren herri ezberdinetako Kultur Teknikarien galderei erantzun zien. Bileran zehar, Euskadiko Antzoki Sareak 1995. urteko lehen hiruhilabetee-

tan izango duen egitaraua osatu zen.

E.A.S., Euskadiko Antzoki Sarea sortzearen arrazoia, instituzio publikoek arte eszenikoak erreprezentatzeko azpiegitura egokiak eduki arren, eskaintza koordinatu baten beharrean datza. Helburua, sarearen barruan dauden udalerrietan, arte eszenikoen erreprezentazioa bultzatzea da, batez ere, antzerkia eta dantza. Aldi berean, Antzerti elkartearen bidez, EASEko kide ezberdinen arteko iharduera eszenikoa koordinatzea ere helburuen artean dago.



San Migeleko Murkaikupe Esku Pilota txapelketa jokatu zen joan den abenduan San Migeleko frontoian. Irabazleak lehen mailan, Odria eta Etxeberria izan ziren eta txapeldun ordeak Maguregi eta Agirrebeña. Bigarren mailan, berriz, Txurruka eta Orbeak irabazi zuten txapela eta hauen atzetik Anton eta De Pablo geratu ziren.



Lagun Taldeak egindako Gabon otarra eta bizikleta baten zozketaren irabazlea Elena Garate izan da, (argazkian bere sendiarekin, Lagun Taldeko Tomas Salegiren zorionak jasotzen). Elenak 9.595 zenbakia zeukan, saritua izan zen zenbakia, alegia. Ez dakigu Elenari bizikletan ibiltzea gustatuko zaion, baina ziur etxeko txikienek tratu ederra emango diotela bizikletari.



Pilar ikastetxean Gabonetako jaialdia izan zuten joan den hilean. Olentzero, Maria Birjina, San Jose, Jesus haurtxoa, artzaiak, Errege magoak... Gabonetako pertsonaia guztiak antzestu zituzten Pilarreko ikasleek. Gabon kanta abestu zituzten, istorioak kontatu eta antzerkia antzestu.

■ Grabatu kalkografikoari buruzko ikastaroa

Egur Arte tailerrak grabatu kalkografikoari buruzko ikastaroa antolatu du hilaren 10etik 31ra bitartean, arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Izena emateko Egur tailerrera zuzendu, Ubitarte z/g, arratsaldeko 6,30etatik 8etara bitartean.

■ Geriatria eta etxez-etxeko laguntza ikastaroak

Durangoako *Sartu* bulegoak bi ikastaro antolatu ditu 95. urteari begira. Etxez-etxeko laguntza ikastaroa otsailetik ekainera burutuko da goizez, eta 20 pertsonarentzako lekua baino ez dago. Ikastaroaren barne hilabete bateko praktikak sartzen dira. Geriatria auxiliar ikastaroa apiriletik uztailera bitartean izango da eta honetan ere 20 plaza bakarrik egongo dira. Bertan izena emateko epea hilaren azkenean bukatuko da. Horretarako (94) 620 04 49/620 00 49 zenbakietara deitu Sagrariogatik galdetuz.

■ C.D. Elgoibar elkarteko otarren zozketa

C. D. Elgoibar Elkartek abenduaren 31n zozketatutako bi sarien zenbakiak honako hauek dira: lehen otarraren zenbakia 29.872 da eta erretserbakoa 5.959. Bigarren otarraren zenbaki saritua 8.273 da eta dagoeneko agertu da jabea. Otarraz gain, Txankakua Merkatari Elkarteko dendetan gastatu ahal izango den 40.000 ptako txekeak osatzen du lehen saria.



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Nagusien Astea antolatu dute San Lazaro Egoitzan

Urtetari hasera ezin hobea eman asmoz, San Lazaro egoitzakoek Nagusiei Eskainitako Astea antolatu dute. Hilaren 2an eman zi-tzaien hasera ekitaldiei, meza, bingoa, dantzaldia... Asteartean urtean zehar izan diren hainbat ekin-tzen bideo emanaldia izan zen eta arratsalde partera, txokolatada bai eta Argia taldeak alaitutako saioa ere. Inazio Bereziartua musikeskolako ikasleek saio berezi bat eskaini zien. Gaur goizean, berriz, Pakearen inguruko hitzaldia en-tzun dute Xabi Gomez apaiz gaztearen eskutik. Horrezaz gain gaur, osteguna, Udal Txistulari Bandak eta Haritz Dantzari taldea aritu dira arratsaldeko 5,30etatik aurrera. Ondoren, Plaxentxi bikotearen eskutik abestiak entzuteko txanda izango dute eta



7ak aldera, Erregeen bisita eta opari banaketa izango da. Urtarrilaren 6an, Errege Egunean, Musika Banda arituko da, ostean meza izango dutelarik bai eta Parrokiako Abesbatzaren kontzertua ere. Bazkari berezi baten ondoren, zinea. Larunbatean, hilak 7, bingoa eta

pelikula izango dira eta aste berezi honi bukaera emateko, urtarrilaren 9an, astelehena, diapositiba emanaldi bat Peruri buruz, Koke Lasa eta Rafa Berasategiren eskutik.

Honekin batera, astean zehar tonbola bat izango da misioetarako dirua eskuratzeko.

BERTSO JARRIEN JAIALDIA

Xabier Euzkitze eta Mikel

PIANOA eta ARREGLOAK: Alberto Iriondo

DANTZAK: Haritz dantzari taldea

Urtarrilaren 14ean, larunbata.

HERRIKO ANTZOKIAN, gaueko 10:00etan



ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra



LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia



Euriak eta hotzak ez zuten Gabon Zahar Feriako giroa zapuzterik lortu

Urteko azken feriak euria izan zuen protagonista.

Udazkenean urik apenas erori den arren, neguan sartzeaz bat eta 1994a bukatzeko, euriak barra barra busti zuen Gabon Zahar egun osoa. Halere, eta horren eraginez jendea gutxiago hurbildu bazen ere, giroak ez zuten inondik inora behera egin. Izan ere, ehundaka pertsona ikus zitekeen Plaza Haundian ezezik, baita Giza Eskubideen Enparantzan, Plaza Txikian eta herriko beste kaleetan zehar ere, aterki eta guzti, nola ez.



Alkateak banatu zituen XIII. Gazta Lehiaketako sariak

Epaimahaikoez adierazi zuten, kalitate handiko produktuak aurkeztu ziren aurtengo ferian, barazkiak, fruta, hegaztiak, ezta eta, nola ez, gazta, besteak beste. Ikusi eta erosi ere bai,

baserritarrek esan zigutenaren arabera. Eta egun horretan jartzen diren txozna berezietara, hainbat eta hainbat pertsona urreratu ziren taloa eta txorizoa jatera, ohiturari jarraiki.

XIII. Gazta Lehiaketa ospatu da, Goiko Errota Elkarteak antolatua. Aurtengo edizioak, gainera, inoiz baino partehartzaile gehiago izan ditu, 46 guztira, Bizkaitik, Nafarroatik, Arabatik eta Gipuzkoatik etorriak. Sari banaketaren ostean, omenaldia egin zitzaien Markinako Florentino Txurrukari, Idiazabalgo Agustin Imazi eta Mariano Goikoe-txeari. Izan ere, hiru ar-tzai hauek GaztaLehiaketa



Epaimahaiak lan handia izan zuen gaztarik onena erabakitzen. Denak ziren kalitate oso onekoak.

Gabon Zahar Feria:

AZOKAN SARRITUTAKOAK

Barazkiak:

- 1. saria:** Maria Jesus Mujika, Balarrain baserria, Anoeta (30.000 pta eta garaikurra).
- 2. saria:** Jesus Artola, Mendibil baserria, Anoeta (25.000 pta).
- 3. saria:** Santos Duñabeitia, Bolungarai baserria, Berriz (20.000 pta).

Fruta:

- 1. saria:** Anton Iparragirre, Sagarmiña baserria, Mutriku (30.000 pta eta garaikurra).
- 2. saria:** Martin Bereziartua, Garain baserria, Azpeitia (25.000 pta).
- 3. saria:** Jose Luis Madina, Aramaio (20.000 pta).

Saltoki onena:

Jose Lino Irulegi, Errexil (30.000 pta).

Herriko onena:

Pello Rubio, Txillarre baserria (30.000 pta).

Mendirik zainduenak:

- 1.** Alejandro Arrieta, Xemein Gain baserria, Markina (25.000 pta).
- 2.** Prudentzio Izagirre, Uba Txiki baserria (30.000 pta).
- 3.** Andres Badiola, Antxola baserria (25.000 pta).

Hegaztiak:

Euskal oilaskoa: Javier Quirós, Beasain (25.000 pta eta garaikurra).

Kapoiak: Mari Karmen Uranga, Errosaliena baserria, Hernani (25.000 pta eta garaikurra).

Baserriko oilaskoa: Xabier Goikoe-txea (25.000 pta eta garaikurra).

XIII. Gazta Lehiaketa

- 1. saria:** Mikel Etxezarreta, Zestoa (257,5 puntu).
- 2. saria:** María Concepción Aldasoro, Mutiloa (242 puntu).
- 3. saria:** Florencio Txurruka, Markina, (241, 5 puntu).

Bisitarien boturik gehien jaso zituena: Guillermo Zugazua, Zuazo San Millan.



Txillarre baserrikoa den Pello Rubiok jaso zuen herriko Onenari eskainiriko saria. Kalitatea eta barietatea hartzen dira, batez ere, kontuan, bai eta aurkezteko era ere. Pellok produktu biologikoak saltzen ditu.



Kultur Etxe parean batzuk eta San Frantzisko iturri inguruan beste batzuk, aurten hegazti mordoska bat ikusteko aukera izan dugu. Ohizko oilaskoak ezezik, bitxietan bitxienak ere bai. Hona hemen "Fenix Plateada" izenekoa.



Gabon Zahar Feria
Panderak



Fruituen atalari dagokionean Anton Iparragirre mutrikuarrak eskuratu zuen lehen saria. Argazkian ikus daitezkeen sagarrek itxura ezin hobea dute.

Urteko azken azoka

iza Eskubideen enparantzan begia gozatzeko eta ahoa
ozotzeko aukera zegoen. Euskal pastela ezezik, baita ezta
re eta, argazkia lekuko, argizariz eginiko bitxikeriak ere bai.



11 kilo! Horra hor gure kamarak hartu zuen ogi puska
erraldoiaren pisua. Feria egunean baserritarrek egiten
dituzten ogi hauek izugarrizko estimazioa izaten
dute.



Zahar egunean ezin falta Trikitixa Eskolako ikasleen kalejira.
oa batzuk eta soinua beste askok, kaleak ederki asko alaitu

Ganadurik ez zen falta izan. Euri azpian blai, mantso mantso
agertu zitzaigun honako txahal txikia adi-adi begira.



Gauza guztien gainerik bada egun honetan bereziki
nabarmentzen dena, taloa eta txorixoa. Ohizko diren AEK eta
EAJ-PNVren txoznez gain, aurten Talde Antimilitaristak ere
taloa egiten jardun zuen eta beste asko guzti horiek
eginikoak jaten, nola ez.

Amaia Noguero:

"Beherapenak, saldoak eta likidazioak ez dira gauza bera"

Olentzero pasa da, Erregeak gaur gauean datoz... Gabonak igaro dira, jadanik, eta astelehenean hasita, Elgoibarko hainbat dendatan beherapenen txartelak ikusiko ditugu eskegiak, zenbait tokitan hasi dituzten arren. Urteroko gaia da eta askotan gertatzen da beharrezkoak ez ditugun gauzak erosten

ditugula, merkeago daudenez erosi eta akaso aprobetxatuko ditugulakoan. Aurreztu baino alferrikako gastua dela uste du askok. Ezertan hasi aurretik, irakurri ditzagun Amaia Noguero Kontsumitzaileen Bulegoko Teknikariak beherapeneri buruz ematen dizkigun aholkuak.

- Bereiztu itzazu beherapenak, saldoak eta likidazioak.

- Beherapenak urtean bi aldiz ematen dira, "tenporadaren" aldaketa ematen denean, hau da, urtarilean eta uztailean, gutxi gora behera. Beherapenetan, kalitate bereko produktuak saltzen dira, tenporadako produktuak eta gehienez hilabete daramatenak dendan. Ezin dira apurtutako produktuak saldu ez eta helburu horretarako eskuratutakoak ere.

- Apurtutako produktuak, beraz, saldotan jartzen dira.

- Bai, hala da. Saldoa hondatutako produktuen salmenta da eta saltzaileak argi utzi behar dio kontsumitzaileari zein den saldo horrek duen akatsa. Hirugarren kasua kitapena edo likidazioa dugu. Likidazioak, negozioa uzten denean, negozio hori aldatzeko asmoa dagoenean edota ezbehar edo derrihortasun batek hala bulztatua ematen dira.

- Saldoak eta likidazioak edozein unetan jarri al daitezke?

- Bai, beherapenek garai konkretu bat dute baina beste bi kasuetan merkatariak nahi duenean jar ditzake. Kontuan izanik arrazoiak goian aipa-



"Beherapenetan erositako artikuluak akatsen bat badu eta beste bat ez badago, dirua itzuli behar dizute nahi baduzu."

tutakoak direla eta sekula beherapenak direla jarri gabe, logikoki, saldo eta likidazioetan kalitatea eskasagoa izaten baita.

- Salneurria ongi zehaztu behar da, ez?

- Bai eta kontsumitzaileak hala eskatu behar du. Hau da, beherapenetan artikulu guztiek izan behar dute txartel bat eta bertan aurretik zeukan salneurria eta beherapena egin eta gero daukana zehaztu behar dira argi eta garbi.

- Zeintzu dira bulegoan jasotzen dituzuen kexarik arruntenak?

- Beherapenen gaiari

dagokionean jendeak ez du erreklamaziorik egiten. Jendeak arazoren bat izaten duenean merkatariarengana jotzen du zuzenean, berarekin konpontzeko. Gehienbat informazio eske hurbiltzen da. Gertatu izan da bateron bat etortzea kreditu txartelei buruzko informazio eske. Izan ere, zenbait dendatan normalean ordainketa txartelaz egitea onartzen badute ere, beherapenetan ez dute hala onartzen. Jendeak jakin behar du legez denda horiek derrigortuak daudela txartela jasotzera kontsumitzaileak hala nahi

badu.

- Eta artikuluak aldatu edo itzultzeari buruz?

- Beherapenetan batzuk dirua itzuli beharrean bale bat egiten dizute baina erosi duzun produktuak akatsen bat badu eta artikulu berdina ez badago, balea nahi ez baduzu dirua itzuli behar dizute. Beste gauza bat da etxera bueltatzean erositakoa ez gustatzea, kasu horretan ez dute zertan dirurik itzuli beharrik.

- Emaizkiguzu aholku batzuk beherapenetan hutsik ez egiteko.

- Lehenik eta behin beti eskatu eta gorde behar da erosketa denda horretan egin dugunaren adierazgarri den erosketa tiketa, gero hala frogatzeko erreklamazio bat egiterakoan. Bigarrenik, benetan behar diren gauzak erosten saiatu. Salneurriak, lehengoa eta berria, zehaztuak eta produktu guztiak etiketatuek egon behar dira. Erosi aurretik galdetu itzuleren asuntua nola dagoen, baleen gaia eta abar eta ahal den neurrian itzultzeko aukera ematen duten tokietan erosi. Eta gogoratu kreditu txartelak onartzen dituzten saltokietan beherapenetan ere onartuak izan behar direla.

Julio Bueno

"Aitzbizkar" almagaztenkoa



- **Baso bat ardo egunean ona omen da.** ▶ Bai, hala uste dut. Estimulantea da eta bizi poza ematen du. Medikuek ere hala diote gainera.
- **Zenbat eta urte gehiago orduan eta hobea al da ardoa?** ▶ Bai, bai. Urteak pasa ahala ardoa irabazten doa.
- **Eta bizitza?** ▶ Bai. Gaztetan ez dauzkazun gauzak ikasten eta irabazten dituzu heldutasunarekin.
- **Ardo beltza ala txuria?** ▶ Janariaren arabera, okelarentzat beltza edo gorria eta arrain gehienentzat zuria.
- **Ospakizun berezi baterako ardoa?** ▶ Ardo bikain bat, 82koa edo 64koa. 1994koa ere oso ona izan da eta sei-zazpi urte barru, erreserbako ardo ezin hobea izango da.
- **Afari erromantiko baterako ardoa?** ▶ Neskei gehien ardo gozoak, "aguja" tipoko ardo gorria gustatzen zaie.
- **Zenbat ordainduko zenuke ardo on bategatik?** ▶ Badaude 50.000 pta balio duten ardo botilak baina nik ez nuke horrenbeste ordainduko. 1.500 pta inguruko erreserbako ardo oso ona da.
- **Egarria kentzeko?** ▶ Ura, egarriarentzat onena ura da.
- **Egin al zenuen soldadutza?** ▶ Bai, Huescan, mendian.
- **Bizarra kentzeko atxurra ala makinila?** ▶ Atxurra erabiltzen dut egunero, bueno ia egunero.
- **Berriro jaioko bazina zer egingo zenuke?** ▶ Gehiago ikasi.
- **Komenigarriak al dira batzuetan gezurrak?** ▶ Onerako badira bai.
- **Zergatik bihurtu zuen Jesusek ura ardotan?** ▶ Beharbada ardo bizitza delako eta ezkontza hari alaitasuna emateko.
- **Umetan sarritan entzun zenuen ipuinik?** ▶ Hiru txerritxoak, Txanogorritxu... Eta komikietan "El capitan Trueno".
- **Hil eta gero?** ▶ Nik Jainkoarengan sinisten dut eta zerbait egongo dela uste dut, bestela norbaiten jostailu izan gara bizitza honetan.
- **Egin duzun azken erokeria?** ▶ Gaur egun apenas, erokeriak gaztetan egiten dira.
- **Superstizioso al zara?** ▶ Bueno, "aitaren" hiru aldiz egiten dut beti eta bazkaldu aurretik beti mahaia bedeinkatzen dut.
- **Eguneko mementurik onena?** ▶ Bazkaria eta osteko kafea eta gaua, lana amaitu eta geroko lasaitasuna.
- **Kirolari izatekotan?** ▶ Esku pilota. Asko gustatzen zait, "me chifla".
- **Erregeek ikatza uzten badizute zapatetan?** ▶ Jan egingo dut.

Urte berri horretan denok dugu leku nahiz eta agintariekin estutu hainbat lepu. Ekonomi indarrak doikuntzaz jabetu: txanpon europarra izango al da E.C.U.

Urte berri horretan nahi dugu patxada: inflazio balazta zorretan algarra aurrekontu doitu egiteko gara. Baina LANGABEZIAK dakarkit ikara.

Europar Batasuna ekonomi plana nahiz eta kultur mailan dibertitu dana Euskal Batasuna baketzeko lana zenbat urte gehiago jasan behar zama?¿¡!



IÑAKI URIBE ODRIA



TXARRIDUNA
PURINA BANATZAILEA

Animalientzat eta nekazaritzarako
behar duzun guztia
daukagu. Zatoz!!



P. Muguruza, 1. ☎ 74 15 97

Jose Ignacio Urcia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

Santa Klarako kanpaien deia (I)

■ Eskerrak eman nahi dizkiet artikulu hau idatzi ahal izateko beraien esperientziak kontatu dizkidaten mojei, batez ere, Sor Maria Jesusi.

■ Kanpaien funtzioaz arituko naiz gaur. Horretarako bi garai bereiztu behar dira. Bata, II. Kontzilio Vaticanora artekoa eta bestea, orduetik gaur egunera arte. Izan ere, azken kontzilio honen ondoren aldaketa sakonak eman ziren eliza katolikoaren barnean.

■ Kanpaiak zeregin erlijioso zein soziala bete izan dute, komunitatearen erritmoa ezezik herriarena ere markatuz neurri handi batean. Kanpaiak isiltasuna, samintasuna, larritasuna baina, baita ere, poztasuna eta jai giroa adierazi izan dute historian zehar.

■ Hona hemen Santa Klarako mojek esandakoak:

1) II. Kontzilio vaticanora arte

- Astegunetan, goizeko 6etan Agelusa jotzen zuten (hiru, hiru eta hiru kanpai jotze). Jarraian beste 33 kanpai jotze egiten ziren, bi kanpaiak txandakatuz, eta jotze bakoitza Jesusen 33 urteen oroimenez. Ondoren, bi kanpaiak batera errepikatzen zituzten. Mezaren ordua adierazteko, laurden gutxitan kanpai haundia jotzen zen luze. Eta, bost gutxitan kanpai txikia motz. Mezan bertan, konsagrazio denboran jotzen ziren. Eguerdiko 12etan Angelusa



jotzen zen hiru aldiz eta ilunabarrean berriz. Arratsaldeko 3etan, Bezperak eta konpletak errezatzeko deia egiten zen, bi kanpaiak batera joaz, Jesusen heriotzaren oroimenez.

- Jai bezperatan, kanpai biak luze jotzen ziren arratsaldean.
- Jai berezietan, kanpai biak hiru aldiz jotzen ziren meza aurretik. San Bartolome eta Santa Klara egunak adierazteko bi kanpaiak hiru bider jotzen ziren Parrokiakoekin batera.
- Igandetan, bi kanpaiak batera jotzen ziren mezaren deia egin asmoz. Kontzilioa baino piskat lehenago Bezperen ordua 7etara aldatu zen eta arratsaldean, Sagrarioan dagoen jauna agirian jartzen zen eta bere bedeinkapena hartu nahi zutenei kanpaiak adierazten zitzaizkien.
- Datorren astean jarraituko dut lehen garai honekin eta gaur egun duten funtzioekin amaituko.

PELLO ARRIETA

Inazio Bereziartua

Musikaria (1883-1958)




- 1883ko uztailaren 21ean jaio zen.
- Gaztetatik Rodriguez Mokoroa irakasle ospetsuarekin musika ikasi zuen.
- Aldundiko beka lortu eta Donostiako Arte Ederretako ikastetxean ikasi zuen.
- 1902an, San Bartolome elizako organista lanpostua eta Elgoibarko Bandako zuzendaritza lortu zituen. "Lagun Onak" orfeoien sortzaile izan zen.
- Konpositore eta armonista bikaina izateaz gain, organoa jotzen nabarmendu zen.
- Elizako pieza eta pieza profano askoren egilea: "Misa in honorem Santi Ignatii Loyolae", "O vos omnes", "Tota pulchra", "Miserere", "Stabat mater"... Bandarako obrak ere idatzi zituen: "Aires Vascos", txisturako ere bai "Txistulari", "Txistularien Kontrapasa", "Burruntzalea", "Ara nun dira"...
- 56 urtez izan zen parroko organujole eta 50 urtez Bandako zuzendari.
- 1958ko martxoaren 7an hil zen.



EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08



Kafetegia

MOTZAK

■ Astelehenera arte igerilekua itxita dago

Kiroldegiko igerilekua itxita egongo da gaurtik hasi, osteguna, eta igandera bitartean depurazio sistema aldaketa egin behar dute eta. Orain arte sistema elektrofisikoa erabili dute baina hemendik aurrera kloroa botako zaio urari, eraginkorragoa delako. Gaur igerilekua hustu egin dute eta urteroko garbiketa egiteko aprobetxatu dute. Ostiralean, larunbatean eta igandean igerilekua itxita egongo da hiru egun gutxienez behar baita 400 m3 ur berotzeko. Astelehenean, ohi denez, goizeko 8etan irekiko da igerilekua.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Ostirala 6

11,30: Lagun Onak-Gernika (Neskak)

16,30: Elgoibar - Lagun Onak
(2. erregionala)

17,00: Haundi - Aurrera Ondarru

Larunbata 7

12,00: Elgoibar-Lazkao (Jubenilak)

17,00: Haundi-Durango

Igandea 8

10,00: Urki-Gazteak (Jubenilak)

17,00: Urki-Antzuola (Jubenilak)

ESKUBALOIA Polikiroldegian

Larunbata 7

16,00: Elgoibar - Ereintza (kad. mut.)

17,30: Elgoibar - Usurbil (Sen. Nesk.)

FUTBITOA Urasandin Igandea 8

10,00: Sporting - Karkis

Mimox - Lucky Luke

11,00: U. Chile - Gruas Pana

Fotero - Tropiko

12,00: H. Verboten - Berrogei duro

Resto del Mundo - Rebel Urbi



Richard Aranzabal:

"Beranduegi ezagutu dut saskibaloia"

■ **Bigarrenez, Gabonetako txapelketako jokalaria onena.** - Ez nuen espero. Gazte asko dator atzetik, baina bai, ilusioa egiten du.

■ **Zein taldetan zaude?** - Zaragozako Pico Coronas-en, bigarren mailan. Kuadrilako Carlos La Hoz eta biok gaude.

■ **Eta lehenago?** - Madrilen ikasten nengoenean inguruan jokatu nuen, Ciudad Realen, Cuencan, Madrilekoek baino hobeto ordaintzen zuten eta.

■ **Zaragozan, zer moduz?** - Oso gustura. Aurten ez neukan jokatzeko asmorik baina Carlosek Zaragozako aipatu zidan eta ekipokoek lantxo bat topatu zidaten klubean bertan, hezkuntza fisikoko klaseak ematen haurrei. Gainera Zaragoza gogoko dut.

■ **Zein postutan jokatzen duzu?**

- Hegalean, baina orain arte pibot bezala jokatu dut. Pibota jokalaririk altuena da baina nire ustez pisua falta zait eta "txikiegia" naiz. Hegalean kanpotik jokatzen da, aroari begira, pibot bezala, berriz, atzea ematen zaio aroari. Haseran hegalean ohitzea kostatu zitzaidan, "tiroa" falta zitzaidan batez ere, pibotak bi metrotatik jaurtitzen du normalean eta hegaleko jokalaria 6,25etik ere jaurti behar izaten du.

■ **Zein taldetan jokatu nahi zenuke?** - Ez daukat talde bat.



Lehen mailako talde batetik deitzea beti da gustukoa baina beranduegi hasi naiz saskibaloian. Pena ematen dit kirol hau lehenago ez ezagutu izana. Orain nahiago dut, edo behintzat errealagoa da hirugarren mailan dagoen talde batean hasi eta sailkapenean igotzen joatea, lehen mailan hastea baino, adinagatik batez ere. Gertatzen dena da, saskibaloian baino lehen futboleant aritu nintzela, txikitatik futbola sartu izan digute eta...

■ **Kirol gehienetan ondo moldatzen zara.** - Bai, taldean jokatzen direnak gustatzen zaizkit. Boleibola izugarri; futbola, eskubaloia... Kirola egitetik bizi izatea nahiko nuke baina... Gainera futboleant ez bada hemen ez dago jokatzen irakatsiko dizunik ez eta leku aproposik ere. Txapelketan ikusi ditut ondo moldatzen diren gazteak eta beraien kabuz ikasi dutenak. Irakatsiko liekeen norbait balute...

■ **Zenbat puntu lortu dituzu gehienez partidu batean?** - Ez dakit, baina aurten adibidez batzbesteko 20 puntu daramat. Dena den, ez diot puntuazioari garrantzirik ematen, taldean jokatzea gustatzen zait.

• **Adina: 25.**
 • **Altuera: 1,95.**
 • **Miresten duzun jokalaria bat? Villacampa.**
 • **Talde bat? Taugres.**

Talleres ALBE ▼▼▼

KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
 CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
 BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA

Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)

Fotero

okindegia

opildegia

San Frantzisko, 4
 Tel. 74 07 35

Pedruskok irabazi du IV. Gabonetako txapelketa

Pedrusko taldea izan da IV. Gabonetako Kuadrila Arteko Txapelketaren irabazlea. Iaz baino 4 kuadrila gehiagok hartu du parte aurten, guztira 30 talde, 400 pertsonatik gora. Aipatu, aurten ez dela nesken talderik osatu. Futbol finalean Karkis taldeak 5 eta leko emaitzaz irabazi zion Kosakos taldeari, eta saskibaloian D. Kalimotxok Drink Team taldeari 64 eta 4leko emaitzaz irabazi zion.

Udal Kirol Zerbitzuak txapelketaren balorazio guztiz positiboa egin du partaidetzari dagokionean. "Jendetza bildu da kirol guztietan, saskibaloia eta

futbol partiduetan jendez gainezka egon da Kiroldegia. Partiduak egun osoan zehar jokatu dira, zenbaitean goizaldeko 4ak arte ere bai. Kanean burutu diren kiroletan ere, krosean eta txirrindularitzan, jende mordoak bildu zen".

Punturik negatiboa, antolakun-tzaren ustez, aurten inoiz baino lesio gehiago egon direla da, asko lesio inportanteak izan dira gainera. Udal Teknikariaren esanetan "kuadrilen artean lehia gogorregia egon da, eta txapelketaren filosofia, hau da, denborapasa izatearena, galtzear dago. Datorren urterako neurriak hartuko ditugu zentzu honetan".

SAILKAPEN OROKORRA

- 1- Pedrusko (80 puntu)
- 2- Hunde Verboten (65 p.)
- 3- D. Kalimotxo (65 p.)
- 4- Kosakos (50 p.)
- 5- Drink Team (50 p.)
- 6- S. Pitxote (45 p.)
- 7- Atxolin (45 p.)
- 8- Karkis (45 p.)
- 9- Satorrak (40 p.)
- 10- Oraiko (40 p.)
- 11- Mazantini (25 p.)
- 12- Apalankatuak (25 p.)
- 13- Denon artean (20 p.)
- 14- Peña Mak (20 p.)
- 15- Lanbroa (20 p.)
- 16- Gurutze Gorria (15 p.)
- 17- Mauxitxa (10 p.)
- 18- Txungo Pastel 1 (5 p.)

SAILKAPENA KIROL BAKOITZEAN

Pala:

- 1- Pedrusko
- 2- Kosakos
- 3- Juve Mekanika
- 4- Gurutze Gorria

Kronoeskalada:

- 1- Hunde Verboten
- 2- Pedrusko
- 3- D. Kalimotxo
- 4- Satorrak

Krosa:

- 1- Pedrusko
- 2- Atxolin
- 3- Mazantini
- 4- Hunde Verboten

Areto futbola:

- 1- Karkis
- 2- Kosakos
- 3- D. Kalimotxo
- 4- Drink Team

Saskibaloia:

- 1- D. Kalimotxo
- 2- Drink Team
- 3- Spartak Pitxote
- 4- Oraiko

Talde deportiboa:

Gurutze Gorria

Jokalari onena:

Richard Aranzabal



■ ■ Sari banaketaren ostean, hemen ditugu saria jasotzen taldeetako ordezkariak.



■ ■ Pedruskok merezimendu osoz irabazi zuen.



■ ■ Hunde Verboten taldea. Bigarren 15 puntura.

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hobetuz

Joan den hilean bukatu ziren Donostiako Filosofia eta Hezkuntz Zientzien Fakultateak antolatuta eta Drogomenpekotasunen Udal Zerbitzuak lagunduta, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko ikastaroa. OHOk 3., 4. eta 5. mailako irakasle eta gurasoei zuzendua zegoen eta harrera ezin hobea izan du irakasle zein gurasoen artean.

70 gurasok eta hiru ikastetxe-etako irakasle guztiek hartu dute parte ikastaroan, gurasoen hiru talde eta irakasle-talde batean banatuta. 10 saio izan dira, urrian hasita, abenduaren bukaera arte. Iazko ikasturtean esperientzia berdina burutu zen ertaintako gurasoekin eta haren arrakasta ikusita, OHOkoein programa berdina aplikatzea erabaki zuten.

Estrategia berriak landuz

Gurasoek zuzenak ez diren jokabideak izaten dituzte askotan seme-alabekin. Garraxi egiteak, bronkak botatzeak... askotan edo gehienetan ez dute desiatutako efektua lortzen, aitzitik, kontrako efektua ere sortarazi ohi dute. Iritzi



■ ■ Ikastaroan parte hartu duten guraso taldeko hainbat ikastarokide.

honetakoak dira ikastaroa ematen jardun duten Juana Maria Maganto, Isabel Bartau eta Mari Angeles de la Caba Donostiako Hezkuntz Zientzien Fakultateko Pedagogia saileko irakasleak. "Gure programak egoera hauetarako errekurtsoak eskaintzen ditu. Harremanak hobetzea da helburua, eta hobetzea diogunean ez dugu esaten harremanak txarrak direnik, prebentzioaren bidetik, konfliktua sortu aurretik lan egitea da helburua, disziplina atalean lan egingez batez ere. Eguneroko bizitzan

sortzen diren egoera arruntetan, zenbait jarrera kontrolatzen jakitea irakatsi nahi zaie". Horregatik funtsezkoa izan da gurasoekin eta irakasleekin batera lan egitea, familian ezezik, eskolan ere arazoei modu berdinean aurre egiteko.

Elgoibarren ezezik, beste herri batzuetan ere burutu da esperientzia hau. Erantzuna oso ona izan da orokorrean baina elgoibartarrak denen artean eredu izan dira, batez ere irakasleak, hiru ikastetxeetako guztiguztiak hartu baitute parte.

Gabi JATETXEA



Berezitasunak

- GOSARIAK • PINTXOAK •
- (8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK
- MENU TRADIZIONALAK

JANGELA:

Astelehenetik larunbatera IREKITA
Astelehenetik ostegunera GAUEZ ITXITA

Zorionak eta Urte Berri On!

Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

Banda kontzertua Errege Egunean



Udal Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du, bihar, hilak 6, Errege Eguna. Ohi denez, goizeko 10,30etan kalejira egingo dute eta segidan, San Lazaro egoitzan zenbait pieza joko dituzte. Eguerdia partera, 12,30etan hain zuzen, hasera emango zaio kontzertuari Herriko Antzokian. Bost pieza joko dituzte Jose Antonio Osorok zuzenduta: “Churumbelerias” Paso-doble (E. Cebrian), “El lago de los cisnes” Suite-Ballet (Tschaikowsky), “La Revoltosa” Preludio (R. Chapí), “Mendi-Mendiyan” Fantasia (J.M.

Usandizaga) eta “New York, New York” Selección (J. Kander).

109. aldiz eta etenik gabe

Pasa den Gabon Gauean, 109. aldiz etenik gabe, jo zuen Udal Musika Bandak Gabon Gaueko kalejira tradizionala. Arratsaldeko 7etan irten ziren Plaza Handitik San Bartolome kalea, San Frantzisko kalea, Maala eta Errosario kaleak zeharkatuz. Kultur Etxearen aurrean Gabon kantak jo zituzten eta Plazara heltzean berriro beste hainbat pieza eskaini zituzten bertan bildu ziren entzuleen gozamerako.



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak

antolatutako Gabonetako Bertso Jaialdira espero baino jende gutxiago urreratu zen. 400 bat lagun izan ziren Jon Barandiaran elgoibartarrak jarritako gaien inguruan kantatu zuten sei bertsolarien jarduna ikusten. 10,30etan hasi eta 12ak arte luzatu zen saioan Andoni Egaña., Sebastian Lizaso, German Meababasterretxea, Joxe Agirre, Jokin Sorozabal eta Millan Telleria izan ziren puntua jartzen.

MOTZAK

Bertso jarrien kantaldia hilaren 14an

Elgoibarko Izarra Elkarteak bertso jarrien kantaldia antolatu du hilaren 14rako. Esperientzia berritzailea da, lehen aldiz egiten baita era honetako jaialdia. Bi bertsolarik, Xabier Euskitzek eta Mikel Mendizabalek, Alberto Iriondo elgoibartarrak pianoan lagunduta, aurrez idatzitako bertsoak kantatuko dituzte. Arregloak ere, Alberto Iriondok egindakoak dira. Bertsolari bakoitzak laupabost bertso sorta abestuko ditu. Saioak bi zati izango ditu eta tartean, Haritz Taldeko dantzariak Udal Txistulariekin batera arituko dira. Ekitaldia Herriko Antzokian izango da, hilaren 14an, larunbata, gaueko 22,30etan hasita.

Bederen 1 taldearen “Errenta” lana Herriko Antzokian

Bederen 1 antzezaldeak Azpeitiko Antzerki Jardunaldietan estreinatutako “Errenta” lana taularatuko du datorren ostiralean, hilak 13, gaueko 22,15etan Herriko Antzokian. Ramon Agirre aktorearen idatzi batean oinarritua, gaurkotasuneko komedia bitxi bat da. Ramon Bareak zuzendutako antzezlan honek “Donostia saria” irabazi du iaz. Lau pertsonaien arteko nahaste borrastean, umorea eta itxurak gordetzea, samurtasuna eta zinismoarekin batera dabilta jokuan. Antzezlanak ordu t´erdiko iraupena dauka.

Ezagutu ditzagun aurtengo Maria eta Jose



- **Nolatan zuek aurtengo Maria eta Jose?** - *Marian:* Niri ilusioa egiten zidan. Bizilaguna dudana Marga katekistari galdetu nion ea aukeratua zegoen nor izango zen aurten Maria. Arazorik ez zegoela esan zidaten eta haserako ilusioa egia bihurtu da.

- **Eta Jose?** *Candido:* Lehenengo Marianen senargaiak izan behar zuen Jose baina hura lanean dago eta ezin duenez, niri komentatu zidaten eta... Ezin ezetz esan!

- **Fededunak al zarete?** *Marian:* Ni bai, dudarik gabe gainera. Nahiz eta gaur egun askotan saiatsen diren bestelako ideiak sartzen, nik argi

Ohitura den bezala, gaur Erregeen kabalgata izango da herriko kaleetan zehar. Santa Klara aldetik jetsiko dira Plaza Haundira iritsi arte. Bertan, jaiotza bizidun batean, Maria, Jose eta Jesus haurra izango dira. Aurten, Maria, Marian Gala, 20 urteko neska elgoibartarra izango da. Jose, berriz, Candido Romero, jaiotzez plaentxiarra izan arren, duela zenbait hilabetetik hona, Elgoibarren butanero lanean ari den eta bertan bizi den mutil gaztea.

daukat nere fedea.

- **Horregatik, beraz, Maria izateko ilusioa?** *Marian:* Bai, bai. Asuntoa ez da han egotea, jendeak begiratzea eta argazkietan azaltzea... Horretarako lehen ere eskaini izan didate beste zenbait gauza egitea eta nik ez ditut onartu. Hau bai, Maria izateak ilusioa egiten didalako.

- **Eta zuk, Candido, nola bizi duzu gutia?** *Candido:* Egia esan "korte" piskat ematen dit denen aurrean egoteak.



Nere iloba guztiek badakite eta nik uste haiek dutela ilusiorik handiena euren osaba Jose bezala moztrotua ikusteko.

- **Nola doaz Gabonak?** *Candido:* Ondo daude. Urtean zehar familiarekin gustura egon eta hitzegiteko aukera gutxi dago eta aprobetxatu egin behar da. Familiarekin eta lagunekin ere bai, noski. *Marian:* Lehen gehiago gustatzen zitzaizkidan, umetan. Lan asko egoten da, batez ere janari guztia prestatu behar duenaren-



tzat. Gainera gaur egun galtzen ari da, jendea 24an irtetzen da... Nere amak esaten duen bezala, errespetua galtzen ari da. Gai nontzean, giroa asko gutatzen zait.

- **Erregeak zuengana joango dira zuzenean. Zer eskatuko diezue?** *Candido:* 1994a baino hobea izatea, lan asuntoan batez ere. Butanero bezala ez nago gaizki, lan bat da, azken finean. Baina igeltsero ikasketak egin ditut eta horrelako lanen bat izatea nahi nuke. *Marian:* Nire kasuan, orain daukadan lana mantentzea. Zerbait hobea ere nahiko nuke, noski, baina lan honetan oso gustura nago, ondo pasatzen dut eta jendea oso atsegina da.

Richi

Zorionak eta Urte Berri On!

ILEAPAINDEGIA • DEPILAZIOA • MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Grasa • Kaspas • Erorketa

Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

DAMKAR'T

Ileapaindegi eta estetika eskola

Zorionak eta Urte Berri On!

Bittor Sarasketa 7-3. Tel: 12 15 18 EIBAR

Garajeak

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifizioan. Prezio onean.
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
☎ 74 13 67

GARAJE ITXI BAT dut salgai Olosa poligonoan. 14m2 eta 3,5m altuera. 1.100.000 pta.
☎ 65 23 69 Josetxo

XT 600 YAMAHA TRAIL motor bat salgai. Matrikula, SS-X
☎ 74 10 35

Ordenadorerako MAHAI BAT eta balkoirako ZAPATERO ARMARIO BAT saltzen ditut. Berri berriak. Fondoa 45 zm., Altuera 1,40 m. eta zabalera metro bat.
☎ 74 34 86

R-21 TX-E kotxe bat salgai. Matrikula, SS-z.
☎ 74 10 35

EKONOMIKA BAT saltzen da. Labe eta guzti. Berria.
☎ 74 09 86
(arratsalde 8,30etatik aurrera.)

GIMNASIA EGITEKO BANKO BAT SALTZEN dut. Abdominalak, arrauna, e.a. egiteko balio du.
☎ 74 29 52
Gauetz 8-10etara

Bi izarreko FRIGORIFIKO BAT saltzen da. 3 urte ditu. 15.000 pta.
☎ 74 19 57

PSIKOLOGIA LIZENTZIATUA naiz eta OHOKo klaseak ematen ditut. Emaizta onak
☎ 74 14 14

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
☎ 74 21 88 Pilar

IDAZKARIA ETA ENPRESARIALESEN diplomaturia, informatika ezagupenekin edozein ofizina lan egiteko prest dago salmenta ezik.
☎ 74 39 89 (Mari Karmen)

Neska euskaldunak ETXEKO LANAK egin edota HAURRAK ZAINDUKO lituzke.
☎ 10 06 23

Salerosketak

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.
☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.
☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.
☎ 74 11 28 Juani
☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.
☎ 74 13 97
8,30etatik aurrera

Estilo Castellano-dun LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, 1'35; armarioa, bi mahaitxo eta tokadorea ispiluarekin.
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.
☎ 74 01 75

Lana

OHOKo irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.
☎ 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA batean. Apiriletik aurrera
☎ 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gaztekeraz.
Maite.
☎ 74 39 24

Bestelakoak

P. Muguruza eta King-kong artean BELARRITAKO BAT GALDU NUEN. Perla urdin bat du.
☎ 76 02 33

BELARRITAKO BAT galdu nuen abenduaren 8an. Lazo forma dauka eta erdian perla zuri bat du.
☎ 74 19 71

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.
☎ 74 05 74 Maite

CARITASEk erropak gordetzeko ARMARIO BAT eta UMEENTZAKO KOTXESILLA BAT behar ditu.
☎ 74 15 09
☎ 74 12 57

ABENDUAN

Hildakoak

- ▶ Pedro Duran Muñoz, 62 urte (Hilak 1)
- ▶ Ines Arriola Loiola, 85 urte (Hilak 7)
- ▶ Teofilo Menguiano Perez, 78 urte (Hilak 12)
- ▶ Saturio Fernandez Iceo (hilak 14)
- ▶ Victor Zubizarreta Astigarraga, 77 urte (Hilak 23)

Jaiotakoak

- ▶ Andrea Arece Arriola (Hilak 4)
- ▶ Pello Errasti Irureta (Hilak 6)
- ▶ Garazi Aiesta Txurruka (Hilak 9)
- ▶ Maria Barrenetxea Arrizabalaga (Hilak 14)
- ▶ Ainhoa Garcia Mallo (Hilak 20)
- ▶ Ander Astigarraga Ugarteburu (Hilak 29)

Ezkondutakoak

- ▶ Eliseo Diez Vargas eta Maite Astigarraga Iglesias (Hilak 10)
- ▶ Jose Ramon Kortazar Arizaga eta Nieves Astigarraga Astigarraga (Hilak 17)

6 OSTIRALA

10,30 **BANDAREN KALEJIRA**

11,30 **UMEEN MEZA ERREGEEKIN**

✓ San Bartolome parrokia

12,30 **BANDAREN KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

16,30 **ZINEA**

"Festival Tom y Jerry"

19,30-22,15 **ZINEA**

"Cuando un hombre ama a una mujer"

7 LARUNBATA

19,30-22,15 **ZINEA**

"Cuando un hombre ama a una mujer"

8 IGANDEA

16,30 **ZINEA**

"Festival Tom y Jerry"

19,30-22,15 **ZINEA**

"Cuando un hombre ama a una mujer"

9 ASTELEHENA

22,15 **ZINEA**

"Cuando un hombre ama a una mujer"

10 ASTEARTEA

18,00 **GRABATU IKASTAROA**

✓ Ubitarte Plazan
Antolatzailea: Egur
Hilaren 31a arte

22,15 **ZINEA**

"Vidas cruzadas"
(Ikuslearen eguna)

13 OSTIRALA

9,00 **IRUDI BIZIAK: ZINEA**

"Los Aristogatos"

22,15 **ANTZERKIA**

"Errenta" Bederen 1
✓ Herriko Antzokian

NAGUSIEN ASTEA San Lazaro Egoitzan

Hilak 5, osteguna

17,30: Udal Txistularien bandak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak eskainitako ihardunaldia.

18,30: "Plaentxi" bikotearen saioa

19,00: Erregeen bisita eta opari banaketa

Hilak 6, ostirala

10,30: Musika Bandaren saioa

11,00: Meza nagusia eta Parrokiako abesbatzaren kontzertua

Ondoren bazkari berezia

17,30: Pelikula

Hilak 7, larunbata

11,00: Bingoa

17,30: Pelikula

Hilak 9, astelehena

17,00: Diapositiben proiektzioa.
Gaia: Peru. Koke Lasa eta Rafa Berasategiren eskutik

txandak

FARMAZIAK:

6, ostirala: Ormazabal
7, larunbata: Ormazabal
8, igandea: Ormazabal
9, astelehena: Etxeberria
10, asteartea: Etxeberria
11, asteazkena: Etxeberria
12, osteguna: Etxeberria
13, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

6, ostirala: ZABALETA
8, igandea: EIZAGIRRE eta IDARRAGA

ZINEA

Quando un hombre ama a una mujer

Zuzendaria: Luis Mandoki

Antzezleak: Andy Garcia, Meg Ryan, Ellen Burstyn.

Alkoholismoaren arazoaren bidez, itxuraz zorionsua den amerikar familia baten barruko gorabeherak kontatzen dira. Familiaren bizimoduaren gainbeherarekin, maitasun eza eta elkarren arteko ulertu ezina gertatuko dira. Jadanik funtzionatzen ez duen American way of life deritzonaren inguruko kontakizuna da. Hori bai, betiko melodrama sentimental horietarikoa da.

Vidas cruzadas

Zuzendaria: Robert Altman

Antzezleak: Andie MacDowell, Jack Lemmon, Anne Archer, J. Jason Leigh.

"Short Cut" izeneko zortzi istorioko kontzizunean oinarritua, argumentuen collage modukoa da. Umorea, maitasuna eta terrorea, poliziak, biolontxelo joleak, igerilekuko mantenuko langileak, gidariak, jazz abeslariak, medikuak, telefono bidezko sexu espezialistak, TBko komentariak... beraien bizitzak gurutzatu egingo dira.

maiatzaren 28an

**ALKATE ETA ZINEGOTZIEN
EJENPLUA NAHI DUGU!**





sake

KOPERATIBAK

ineko

NEKAZAL DENDA
ELGOIBAR

**Loragintza
Baratza
Ongarriak
Pentsuak
Jantziak
Tresnak
Eta abar...**



*Orain zure etxetik inoiz baino hurbilago gaude.
ZATOZ ETA BISITA GAITZAZU.*

San Frantzisko 24, behea ELGOIBAR Tel: 74 07 62

Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70